

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDAL ADMINISTRAZIOAREN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN SAILA

Errolda eta Hauteskundeak

Hautesle errolda kontsultatzea

2020ko uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak direla eta, maiatzaren 25etik ekainaren 1era bitartean, biak barne, udalerrri honetako hautesleen zerrendak kontsultatu ahal izango direla jakinarazten du Vitoria-Gasteizko alkateak, ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren -gerora urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak aldatua- 39.2. artikuluari jarraiki. Gasteizko Udaleko Biztanleen Erroldako administrazio-erregistroaren 2020ko martxoaren 1eko egoera hartu da kontuan errolda eguneratzeko.

Kontsultak egiteko ordutegia eta lekuak, 010 telefonoan aldeztu aurretik hitzordua eskatuz, hauek izango dira:

- San Martineko udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara.
- Lakua, Hegoalde, El Pilar, Judimendi, Iparralde, Arriaga, Aldabe Ibaiondo eta Salburuko gizarte-etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoak: egunero, larunbat eta igandeak barne, 09:30 etik 20:00era.
- 010 telefonoa: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara; larunbatean: 08:00etatik 14:00etara.
- Udalaren web-orrian: www.vitoria-gasteiz.org.

Erroldako datuei buruzko erreklamazioak bulego eta epe horietan bertan aurkeztu ahal izango dira, aipatutako Lege Organikoaren 39.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 20an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE